# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**4.563**

**40/2002 FORU DEKRETUA, uztailaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, zenbait hidrokarbururoren Txikizkako Salmenta kudeatzeko arauak onartzen dira.**

Zerga-premiazko Araugintzako 3/2002 Dekretuak, ekainaren 4koak, Zenbait Hidrokarbururoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga berria arautu zuen, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Zerga hau gasolina, gasolio, fuel-olio eta keroseno kontsumoaren gainean ezartzen da, produktu horien txikizkako salmentak zergapetzen dituelarik.

Era berean, aipatutako xedapen orokorrean adierazten da zerga horretatik sortutako etekinak oso-osorik osasun gastuak edo foru erakundeen eskumenekoak soilik diren ingurumen-ekintzak finantzatzera bideratuko direla.

Zerga-premiazko Araugintzako Dekretua aplikatzeko, beharrezkoa da kudeaketa jardunbide egokia onartzea. Foru Dekretu honek helburu hori du eta, zerga likidatzeko eta ordaintzeko arauekin batera, kudeaketaren beste alderdi batzuk ere arautzen ditu, honako hauekin loturikoak: saldutako eta erosleen esku jarritako produktuen justifikazioa, nazioarteko harremanen esparruko salbuespenak eta bestelako salbuespenak, nazioarteko harremanen esparruko karburante horniketengatiko itzulketa, produktuen itzulketa edo ordezketa, jasanaraztea, lurraldeko erregistroan erroldatzea eta txikizkariaren identifikazio kodea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honi buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ere ikusirik,

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT

**1. artikulua.- Kontzeptuak eta definizioak**

Foru Dekretu hau aplikatzeari begira, honela ulertu behar dira kontzeptu hauek:

**1.** Kudeaketagunea: Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila.

**2.** Kudeaketa bulegoa: Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzua.

**3.** Autokontsumoak: Zergaren gai diren produktuak beraien txikizkako salmenta egiten den establezimenduetan kontsumitzea edo erabiltzea. Zerga-premiazko Araugintzako 1/1999 Dekretuak, otsailaren 16koak, Zerga Bereziei buruzkoak, bere 4. artikuluko 20. atalean aipatzen duen indargabetze erregimeneko eragiketetan produktu horiek kontsumitzea edo erabiltzea ez da holakotzat hartuko.

**2. artikulua.- Saldutako eta erosleen esku jarritako produktuen justifikazioa.**

Zerga-premiazko Araugintzako 3/2002 Dekretuak, Zenbait Hidrokarbururoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga arautzen duenak (aurrerantzean, Zerga-premiazko Araugintzako Dekretua), bere 5.Hiru atalean aurreikusten dituen ondorioetarako, subjektu pasiboek justifikatu beharko dute produktuak saldu eta erosleen esku ipini direla, fakturen kopiak, ordainagiriak, ordainketa-agiriak edo antzeko dokumentuak direla medio, edo Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabidez. Produktuen izaerari berari loturiko zioengatik edo halabeharrezko edo ezinbesteko arrazoiengatik produktuak konponbiderik gabe galtzearen ondorioz saldu edo erosleen esku jarri ez badira, hala egiaztatzen duten frogak aurkeztu beharko dituzte subjektu pasiboek.

**3. artikulua.- Nazioarteko harremanen esparruko salbuespenak**

**1.** Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 6.Bat ataleko a), b) eta c) paragrafoetan adierazten diren salbuespenak aplikatzeko, salbuespenaz baliatzen diren pertsona eta erakundeek kontsumi-

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**4.563**

**DECRETO FORAL 40/2002, del Consejo de Diputados de 9 de julio, que aprueba las normas de gestión del Impuesto sobre Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos.**

El Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 3/2002, de 4 de junio, reguló, con efectos de 1 de enero de 2002, el nuevo Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos. Esta tributo recae sobre el consumo de gasolinas, gasóleos, fuelóleos y querosenos, gravando las ventas minoristas de dichos productos.

Igualmente, la citada disposición general señala que los rendimientos derivados del citado Impuesto quedarán afectados en su totalidad a la financiación de gastos de naturaleza sanitaria o de actuaciones medioambientales de competencia exclusiva foral.

La aplicación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal requiere la aprobación del correspondiente procedimiento de gestión. El presente Decreto Foral tiene este objetivo y regula, junto a las normas de liquidación y pago del Impuesto, otros aspectos de gestión relacionados con la justificación de los productos vendidos y puestos a disposición de los adquirentes, exenciones en el marco de relaciones internacionales y otras exenciones, devolución por suministros de carburantes en el marco de las relaciones internacionales, restitución o sustitución de productos, repercusión, inscripción en el registro territorial y el código de identificación minorista.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.- Conceptos y definiciones**

A efectos de la aplicación del presente Decreto Foral, se entenderá por:

**1.** Centro Gestor: El Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava.

**2.** Oficina Gestora: El Servicio de Tributos Indirectos del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava.

**3.** Autoconsumos: El consumo o la utilización de los productos objeto del Impuesto en los establecimientos desde los que se realice su venta minorista, sin que tenga tal consideración el consumo o la utilización de dichos productos en las operaciones propias del régimen suspensivo a que alude el apartado 20 del artículo 4 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, regulador de los Impuestos Especiales.

**Artículo 2.- Justificación de los productos vendidos y puestos a disposición de los adquirentes**

A los efectos previstos en el artículo 5.Tres del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 3/2002, regulador del Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos (en adelante Decreto Normativo de Urgencia Fiscal), los sujetos pasivos justificarán que los productos han sido vendidos y puestos a disposición de los adquirentes mediante copias de las facturas, recibos, justificantes de abono o documentos similares y por cualquier otro medio de prueba admitido en Derecho. En su caso, los sujetos pasivos deberán aportar las pruebas que justifiquen que los productos no han sido vendidos o puestos a disposición de los adquirentes, como consecuencia de la pérdida irremediable de los mismos por causas inherentes a su naturaleza o por caso fortuito o fuerza mayor.

**Artículo 3.- Exenciones en el marco de las relaciones internacionales**

**1.** Para la aplicación de las exenciones a que se refieren los párrafos a), b) y c) del artículo 6.Uno del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal, las cantidades de productos objeto del Impuesto sobre Ventas

tzeko egokitzat jotzen diren kantitateak (Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren gai diren produktuenak) Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezirako onartutako moduluen eta, hala dagokionean, justifikatutako kontsumo beharren araberakoak izango dira.

**2.** Salbuespena aplikatzeko eskaera eta erabilera salbuetsirako baimena, Hidrokarburoen gaineko Zergako salbuespena izapidatzeko erabilitako jardunbide eta dokumentu berdinekin egingo dira.

**4. artikulua.- Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuan aurreikusitako gainerako salbuespenak**

**1.** Zergako salbuespena aitortzea, kasuan-kasuan, aldez aurretik Hidrokarburoen gaineko Zergako salbuespena edo zerga horren itzulketarako baimena aitortuta egingo da, ontzi eta aireontziak hornitzeko eragiketetan eta arautegiak aurretiazko baimenik ezartzen ez duen kasuetan salbu.

**2.** Sortzapenak gertatu diren hiruhilekoaren hurrengo hileko lehenengo bost lanegunen barruan, subjektu pasiboak dagokion ereduaren araberako aitorpena aurkeztu beharko du kudaketa bulegoan. Aitorpen horretan, epealdi horretako eragiketa salbuetsiak jasoko dira. Subjektu pasibo berberak establezimendu bat baino gehiagotatik egindako horniketa salbuetsiak jasotzen badira zerrendan, Foru Dekretu honen 10.3. atalean aipatzen den xehaketa-orria aurkeztu beharko da.

Kudeaketaguneak baimena eman dezake informazio hau formatu elektronikoan aurkezteko.

**5. artikulua.- Nazioarteko harremanen esparruko karburante horniketengatiko itzulketa**

Zergapetutako produktuen salmentak jendeari txikizka saltzeko establezimenduetan egiten direnean, Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 6.Bat ataleko a), b) eta c) paragrafoetan adierazten diren salbuespenen aplikazioa, aipatutako xedapenaren Bi atalean aurreikusitakoaren arabera, erositako karburanteen prezioan jasotako kuotak itzuliz egingo da; hori guztia, ekainaren 17ko HAC/1554/2002 Aginduak, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga kudeatzeko arauak onartzen dituenak, bere Bosgarren atalean ezartzen duen prozedurari jarraiki.

**6. artikulua.- Produktuak itzultzea edo ordeztea**

Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 5.2. atalean zergari loturik ez egoteko ezartzen den kasua aplikatzeko, beharrezkoa izango da kudeaketa bulegoari aldez aurretik jakinaraztea.

Subjektu pasiboek egiten duten jakinarazpenean, itzultzeko edo ordezteko diren produktuak zein establezimendutan dauden adierazi beharko da, baita haien kantitatea eta izaera eta helburuko establezimendua ere.

**7. artikulua.- Jasanaraztea**

**1.** Fakturak jaulki eta emateko beharra dagoen kasuetan, sortutako kuoten jasanaraztea subjektu pasiboek erosleei fakturan edo antzeko dokumentuan egingo diete, horrek barne hartzen dituen gainerako kontzeptuetatik aparte.

**2.** Zergaren jasanaraztea aparte jasotzeak garrantzizko arazoak sortzen baditu subjektu pasiboen jardueretan, kudeaketaguneak, haiek aurretiaz eskatuta, baimena eman ahal izango du zerga prezioaren barruan jasanarazteko. Hala eginez gero, dokumentuan esaldi hau agertu beharko da: "Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga barne, ....(e)ko tasan".

**3.** Salbuespen bat aplikagarria denean, edo aurreko artikuluan aipatu den loturik ez egoteko kasuan, egoera hori fakturan edo antzeko dokumentuan adierazi beharko da.

**8. artikulua.- Zeharkako Zergen Zerbitzuaren erregistroan erroldatzea**

**1.** Jendeari txikizka saltzeko establezimenduen bitartez (Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 4.Bi atalean definituta) zergari lotutako autokontsumo eragiketak eta zergapetutako produktuen salmentak egiten dituzten subjektu pasiboak establezimendu horiek kudeaketa bulegoaren erregistroan erroldatzera behartuta egongo dira.

Era berean, Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 4.Hiru atalean adierazten diren norbere kontsumorako establezimenduen titularrek kudeaketa bulegoaren erregistroan erroldatu beharko dituzte EBko beste Estatu batzuetatik edo inportazio aduanatik zuzenean jasotzen dituzten produktu zergapetuak.

Minoristas de Determinados Hidrocarburos que se consideran adecuadas para el consumo de las personas y entidades beneficiarias de la exención, serán las correspondientes a los módulos aprobados y, en su caso, necesidades de consumo justificadas, a efectos de la exención del Impuesto Especial sobre Hidrocarburos.

**2.** La solicitud de aplicación de la exención y la autorización de utilización exenta se realizará por el mismo procedimiento y documento que los utilizados para la tramitación de la exención del Impuesto sobre Hidrocarburos.

**Artículo 4.- Las demás exenciones previstas en el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal**

**1.** El reconocimiento de la exención del Impuesto se justificará, en cada caso, con el previo reconocimiento de la exención o autorización de devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos, excepto en las operaciones de avituallamiento a buques y aeronaves y cuando en la normativa no se establezca autorización previa alguna.

**2.** Dentro de los cinco primeros días hábiles del mes siguiente al trimestre en que se han producido los devengos, el sujeto pasivo presentará a la oficina gestora una declaración ajustada al modelo correspondiente, en la que se declaren las operaciones exentas del período. En los supuestos en que la relación comprenda suministros exentos realizados desde distintos establecimientos por el mismo sujeto pasivo, deberá presentarse la hoja de desglose a que se refiere el artículo 10.3 del presente Decreto Foral.

El Centro Gestor podrá autorizar que esta información se presente en formato electrónico.

**Artículo 5.- Devolución por suministros de carburantes en el marco de las relaciones internacionales**

La aplicación de las exenciones previstas en los párrafos a), b) y c) del artículo 6.Uno del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal, cuando las ventas de los productos gravados se efectúen en establecimientos de venta al público al por menor, se efectuará, según lo previsto en el apartado Dos de la citada disposición, mediante la devolución de las cuotas del Impuesto incluidas en el precio de los carburantes adquiridos, de acuerdo con el procedimiento que se establece en el apartado Quinto de la Orden HAC/1554/2002, de 17 de junio, por la que se aprueban las normas de gestión del Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.

**Artículo 6.- Restitución o sustitución de productos**

La aplicación del supuesto de no sujeción prevista en el artículo 5.2 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal requerirá la comunicación previa a la oficina gestora.

En la comunicación que efectúen los sujetos pasivos se deberá indicar el establecimiento donde se encuentren los productos a restituir o sustituir, así como la cantidad y naturaleza de los mismos y el establecimiento de destino.

**Artículo 7.- Repercusión**

**1.** En los casos en que exista obligación de expedir y entregar facturas, la repercusión de las cuotas devengadas se efectuará por los sujetos pasivos a los adquirentes en la factura o documento análogo, separadamente del resto de conceptos comprendidos en la misma.

**2.** Cuando la consignación separada de la repercusión del Impuesto perturbe sustancialmente el desarrollo de las actividades de los sujetos pasivos, el Centro Gestor podrá autorizar, previa solicitud de éstos, la repercusión del Impuesto dentro del precio, debiendo hacer constar en el documento la expresión “Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos incluido en el precio al tipo de …”.

**3.** Cuando resulte aplicable una exención o en el supuesto de no sujeción a que se refiere el artículo anterior, se hará constar esta circunstancia en la factura o documento análogo.

**Artículo 8.- Inscripción en el registro del Servicio de Tributos Indirectos**

**1.** Los sujetos pasivos que realicen las operaciones de autoconsumo sujetas y las ventas de los productos gravados a través de establecimientos de venta al público al por menor, definidos en el artículo 4.Dos del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal, estarán obligados a inscribir tales establecimientos en el registro de la oficina gestora.

Del mismo modo, los titulares de establecimientos de consumo propio a que se refiere el artículo 4.Tres del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal, en relación con los productos gravados que reciban directamente de otros Estados miembros o desde la Aduana de importación, estarán obligados a inscribirlos en el registro de la oficina gestora.

**2.** Orokorrean, establezimenduak kudeaketa bulegoaren erregistroan erroldatzera beharturik dauden subjektu pasiboek erroldatzeko eskabidea aurkeztuko dute, bertan honako hauek jasoz:

- Subjektu pasiboaren eta, hala badagokio, ordezkariaren izendeiturak edo sozietatearen izena, egoitza fiskala eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Ordezkariak daukan ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du.

- Establezimenduen mota eta horiek kokaturik dauden lekua, beren helbidea eta herria adieraziz.

**3.** Erroldaketa egin eta gero, kudeaketa bulegoak interesatuari erroldaketa egiaztatzen duen txartela eskuratuko dio, foru agindu bidez onartzen den ereduaren araberakoa.

**9. artikulua.- Txikizkarien identifikazio kodea**

**1.** Txikizkarien identifikazio kodea (TIK), zergapetutako eragiketak egiten diren establezimenduak eta jarduerak identifikatzen dituen kodea da, eta artikulu honetan ezartzen den moduan eratua dago.

**2.** Kodeak zortzi karaktere izango ditu, honela banaturik:

- Kudeaketa bulegoa identifikatzen duten bi digitu. Karaktereak 01 izango dira.

- Establezimenduan egiten den jarduera identifikatzen duten bi karaktere.

- Hiru karaktere alfanumeriko, jarduera bakoitzaren barruan Zeharkako Zergen Zerbitzuaren erregistroko erroldatze zenbakia adierazten dutenak.

- Kontroleko letra bat.

**3.** Ondorio hauetarako, I. Eranskina onartzen da, artikulu honetako 2. atalean adierazten diren identifikazio karaktereak zehazten dituena.

**10. artikulua.- Zergaren likidazioa eta ordainketa**

**1.** Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergako subjektu pasiboek zehaztuko den ereduaren araberako aitorpen-likidazio bat aurkeztu behar dute, sortutako kuotak eta, hala badagokio, salbuetsitako eragiketak jasotzen dituena, artikulu honetako 4. atalean adierazten diren epeen barruan, eta, aldi berean, kuotak ordaindu behar dituzte.

**2.** Aitorpen-likidazioa aurkeztea eta aldi berean kuotak ordaintzea, orokorrean, subjektu pasiboetako bakoitzak egingo du entitate laguntzaile moduan jarduteko Arabako Foru Aldundiak baimendutako finantza erakundeetan, artikulu honetako 4. atalean ezarritako epean.

**3.** Aitorpen-likidazioan establezimendu bat baino gehiagoren kuotak jasotzen badira, subjektu pasibo berberak horien bitartez jarduten baitu, establezimendu eta kontsumo-lekuetako bakoitzari dagozkion kuotak jarriko dira zehaztuko den ereduaren araberako xehaketa orrian.

Aitorpen-likidazioan horniketa salbuetsiak bakarrik aitortzen badira, xehaketa-orriarekin batera –hala badagokio– Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko da, artikulu honetan ematen diren epeen barruan.

**4.** Likidazio aldiak eta aitorpen-likidazioa aurkezteko eta aldi berean kuotak ordaintzeko epeak honako hauek izango dira:

- Likidazio aldia: Hiruhileko natural bat.

- Epea: Sortzapenak gertatu diren hiruhilekoaren azken egunaren hurrengo hogeita bost egun naturalak.

Aitorpen-likidazioak eta dagozkien xehaketa-orriak, holakorik izanez gero, telematika bidez aurkeztu ahal izango dira, hala erabakitzen den kasuetan.

**11. artikulua.- Jarduerari uztea**

Erroldatutako establezimenduek jarduteari uzten diotenean, haien titularra den edo haien bitartez eragiketa zergapetuak egiten dituen subjektu pasiboak horren berri emango dio kudeaketa bulegoari, establezimendua dagokion erregistrotik ezabatu aurreko izapide moduan.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Foru Dekretu hau ondorioak izaten hasten den momentuan Hidrokarburoen gaineko Zergako salbuespena aitortzeko hartutako erabakiak Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergako salbuespen baliokideetara hedatuko dira behin-behineko

**2.** Con carácter general, los sujetos pasivos obligados a inscribir los establecimientos en el registro de la oficina gestora presentarán la solicitud de inscripción, en la que se hará constar:

- El nombre y apellidos o razón social, domicilio fiscal y Número de Identificación Fiscal del sujeto pasivo así como, en su caso, del representante, que deberá acompañar la documentación que acredite su representación.

- La clase de establecimientos y el lugar en que éstos se encuentran situados, con expresión de su dirección y localidad.

**3.** Una vez efectuada la inscripción, la oficina gestora entregará al interesado una tarjeta acreditativa de la inscripción, según el modelo que se apruebe mediante Orden Foral.

**Artículo 9.- Código de identificación minoristas**

**1.** El código de identificación minoristas (CIM) es el código, configurado en la forma que se establece en este artículo, que identifica las actividades y los establecimientos donde se realizan las operaciones gravadas.

**2.** El código constará de ocho caracteres distribuidos en la forma siguiente:

- Dos dígitos que identifican la oficina gestora. Los caracteres serán 01.

- Dos caracteres que identifican la actividad que se desarrolla en el establecimiento.

- Tres caracteres alfanuméricos que expresarán el número de inscripción, dentro de cada actividad, en el registro del Servicio de Tributos Indirectos.

- Una letra de control.

**3.** A estos efectos, se aprueba el Anexo I en el que se determinan los caracteres identificativos a que se refiere el apartado 2 de este artículo.

**Artículo 10.- Liquidación y pago del Impuesto**

**1.** Los sujetos pasivos del Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos están obligados a presentar una declaración-liquidación ajustada al modelo que se determine, comprensiva de las cuotas devengadas y, en su caso, de las operaciones exentas dentro de los plazos que se indican en el apartado 4 de este artículo, así como a efectuar, simultáneamente, el pago de las cuotas.

**2.** La presentación de la declaración-liquidación y el pago simultáneo de las cuotas se efectuará, con carácter general, por cada uno de los sujetos pasivos, en entidades financieras autorizadas para actuar como Entidades Colaboradoras por la Diputación Foral de Álava, en el plazo establecido en el apartado 4 del este artículo.

**3.** En los supuestos en los que la declaración-liquidación comprenda las cuotas de varios establecimientos a través de los cuales opera el mismo sujeto pasivo, se incluirán, en la hoja de desglose, ajustada al modelo que se determine, las cuotas correspondientes a cada uno de los establecimientos y lugares de consumo.

Cuando en la declaración-liquidación se declaren exclusivamente suministros exentos deberá presentarse junto con, en su caso, la hoja de desglose en la oficina del Servicio de Relación con los Contribuyentes y en los plazos indicados en este artículo.

**4.** Los períodos de liquidación y los plazos para la presentación de la declaración-liquidación e ingreso simultáneo de las cuotas serán los siguientes:

- Período de liquidación: Un trimestre natural.

- Plazo: Los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el trimestre en que se han producido los devengos.

Las declaraciones-liquidaciones y, en su caso, las hojas de desglose correspondientes, podrán presentarse por vía telemática, cuando así se determine.

**Artículo 11.- Cese de actividad**

Cuando se produzca el cese de actividad de los establecimientos inscritos, el sujeto pasivo, titular de los mismos o a través de los cuales realiza las operaciones sujetas, lo pondrá en conocimiento de la oficina gestora, como trámite previo a dar de baja el establecimiento en el registro correspondiente.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Los acuerdos de reconocimiento de exención adoptados en relación con el Impuesto sobre Hidrocarburos en el momento de producción de efectos del presente Decreto Foral se extenderán provisionalmente a las exenciones equivalentes del Impuesto sobre

moduan, otsailaren 16ko Zerga-premiazko Araugintzako 1/1999 Dekretuan, Zerga Bereziak arautzen dituenean, 51. artikuluko 3. atalean ezarritako salbuespenari dagozkionak izan ezik. Hori guztia, kudeaketaguneak salbuespenen aplikaziorako beharrezko baldintzak eta beharkizunak betetzen diren ebaluatzeko duen ahalmenaren kalterik gabe.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga dela-eta 2002ko lehenengo hiruhilekoan zehar sortutako kuotei dagokien aitorpen-likidazioaren aurkezpena 2002ko uztailaren 1etik 25era arteko egunetan egingo da. Aitorpen-likidazio hau 2002ko ekitaldi bereko bigarren hiruhilekoari dagokionetik aparte egingo da.

AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean eta 2002ko ekainaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 9a.– Diputatu nagusiordea eta Foru eta Toki Administrazioa eta Eskualde Garapenerako Saileko foru diputatua, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**I. Eranskina**

Jendeari txikizka saltzeko eta inskribatu beharreko establezimenduen identifikaziorako karaktereak honako hauek dira:

ES: Hornitegiak

CP: Bertako kontsumoko establezimenduak

SU: Hornitzaileak

VM: Jendeari txikizka saltzeko gainerako establezimenduak

***Foru Aginduak***

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

**4.315**

Zenbait Hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko Zergaren aitorpen-likidazioen eta horniketa salbuetsien 569 ereduari onespena emateko ekainaren 20an emandako 344/2002 Foru Aginduak (2002ko ekainaren 28ko Arabako Lurralde Historikoaren 72 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALean argitaratutakoa) eranskinean, 5.872. orrialdean hain zuzen, akats bat dagoela ikusita, komenigarri ikusten da 569. eredua osorik berriro argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 8a.– Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuburua, ROCÍO DAMBORENEA ISUSI.

Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, excepto los relativos a la exención establecida en el apartado 3 del artículo 51 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, regulador de los Impuestos Especiales, sin perjuicio de la capacidad del Centro Gestor para evaluar el cumplimiento de los requisitos y condiciones necesarias para la aplicación de las exenciones.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La presentación de la declaración-liquidación del Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos correspondiente a las cuotas devengadas durante el primer trimestre de 2002, se realizará entre los días 1 y 25 de Julio de 2002. Esta declaración-liquidación se realizará de forma separada de la que se refiera al segundo trimestre del mismo ejercicio de 2002.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 26 de junio de 2002.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de julio de 2002.– El Teniente de Diputado General y Diputado Foral titular del Departamento de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal, CARLOS SAMANIEGO PÉREZ.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**Anexo I**

Los caracteres identificativos de los establecimientos de venta al público al por menor sujetos a inscripción, son los siguientes:

ES: Estaciones de servicio

CP: Establecimientos de consumo propio

SU: Suministradores

VM: Resto establecimientos de venta al público al por menor

***Ordenes Forales***

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

**4.315**

Advertido error en el anexo (concretamente en la página 5.872) de la Orden Foral 344/2002 de 20 de junio publicada en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 72, del día 28 de junio de 2002, por la que se aprueba el modelo 569 de declaración-liquidación y de relación de suministros exentos en el Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, se considera conveniente proceder nuevamente a la publicación completa del modelo 569.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2002.– La Jefa del Servicio de Relación con los Contribuyentes, ROCÍO DAMBORENEA ISUSI.